

ANDRE TA JABE

PARTE-HARTZEKO OINARRIAK
EHU-KO DEIALDIA



Bilbao

UDALA

AYUNTAMIENTO

BERDINTASUN, LANKIDETZA
ETA HIRITARREN SAILA

ÁREA DE IGUALDAD,
COOPERACIÓN Y CIUDADANÍA



AURKIBIDEA

1.	ZERGATIEN AZALPENA	3
2.	PROIEKTUAK SORTZEKO ONURAK ETA ZENBATEKOAK	3
3.	EMATEKO PROZEDURA	4
	3.1 Eskaera aurkeztea	
	3.2 Aurkeztu beharreko dokumentazioa	
	3.3 Hautaketa prozesua	
4.	BETEBEHARRAK ETA EZ BETETZEAK	4
	4.1 Onuradunen betebeharrak	
	4.2 Ez betetzeak	
5.	KONFIDENTZIALTASUNA	5
6.	PUBLIZITATEA	5
7.	PROIEKTUEN JABETZA	5
8.	INTERPRETAZIOA	5

1. ZERGATIEN AZALPENA

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren saila eta UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultateko Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetzak, Fakultate horretako Berdintasun Batzordearekin batera, lankidetzeta-hitzarmen bat egin dute. Horren bidez, Arte Ederretako ikasleei **ANDRE TA JABE** proiektuan parte hartzeko deialdia egin nahi diete. Proiektu hori azaroaren 25eko, hau da, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko ekintzen baitan dago.

Artea eta Berdintasuna interes sozial eta espazio fisiko berean uztartzeko helburua duen ekimen berritzaile bat da.

Proiektuaren helburua emakumeen aurkako indarkeria mota oro salatzea da; era berean, bizitzako arlo guztietan bidezkoa eta berdintasunezkoa izango den gizarte bat aldarrikatu nahi dugu; guzti hori artearen bidez.

Proiektua elkar lotuta dauden bi ekintza zehatzen garapenean datza:

Programaren lehenengo ekintza azaroaren 12an egingo da. Hainbat gizarte eragileren arteko eztabaidarako eremu bat sortuko da, ikuspegi desberdinetatik indarkeria sexista mota guztien inguruan eztabaidatzeko.

Hausnarketarako eremu hori World Kafe formatuan planteatu da. 8 mahai egongo dira; horietan, emakumeek egunerokotasunean (kirola, lana, eremu publikoak...) jasaten dituzten indarkeria adierazpen sinboliko eta erasoei buruz eztabaidatu, horiek identifikatu eta agerian jartzen saiatuko gara.

Arte Ederretako Fakultateko ikasleek behaketa eta entzute aktiboko ariketa bat egingo dute eta grafic recording teknikaren bidez eztabaidetatik jasotako ideiak irudi bidez adieraziko dituzte.

Horren ondoren, azaroaren 22an, ikasle horiek artearen bidez adieraziko dute genero arrazoiengatik edozein indarkeria motarekiko arbuioa, egokiena iruditzen zaien pintura teknikaren bidez, emakume guztiak irudikatzen dituen euskarri zehatz baten gainean.

Sorkuntza jarduera hori kalean egingo da, Emakumeen Azaroaren 25eko Plazan, Bilbon. Bertaratzen direnek zuzenean ikusteko aukera izango dute.

Arte proiektuok deialdi horretarako bereziki diseinatu eta egingo dira. Hiru adituk osatutako epaimahai bat egongo da; erakunde bietako ordezkariak (Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Saila eta UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatea) eta Bilbao Arteko ordezkari bat izango dira. Haiek aukeratuko dituzte parte hartuko duten ikasleak.

2. PROIEKTUAK SORTZEKO ONURAK ETA ZENBATEKOAK

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailak 300 euro gehienez emango dizkie hautatzen dituzten Arte Ederretako ikasleei. Gainera, Bilboko Udalak ziurtagiri bat emango die jardueran parte hartzeagatik.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailak 150 euroko zenbatekoa emango die hautatutako ikasleei aurrerakin gisa, lana sortzeko gastuak estaltzeko. Gero, sortzaileek zenbateko horren gastua justifikatzeko fakturak aurkeztu beharko dituzte.

Faktura horiek proiektuak diseinatu eta burutzeko denbora tartearen barruko data edukiko dute.

Proiektu bakoitzeko kobrantza-eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da eta egokitzen jotzen diren fakturak sartuko dira.

Sorkuntza gastuak ez badira osorik justifikatzen, hau da, ez badira 150 euroko zenbatekora heltzen, gainerakoa zenbateko osotik deskontatuko da.

Gainerako 150 euroak, proiektuaren garapenari dagozkionak, programaren amaieran ordainduko dira.

Ikasleak adierazitako kontu korrontean egingo da ordainketa.

3. EMATEKO PROZEDURA

3.1 Eskaera aurkeztea

Urriaren 17tik 28ra, biak barne, Arte Ederretako ikasleek ANDRE TA JABEN parte hartzeko eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte. Helbide elektronikoko bat dago horretarako: geubiok@ayto.bilbao.net

Eskaerak behar bezala beteko dira eta eskatutako dokumentazioa erantsiko da. Guztia adierazitako helbidera bidali behar da. Ikasleak banaka edo talde moduan aurkeztu ahal izango dira proiektuan.

3.2 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- ANDRE TA JABE programan parte hartzeko Eskaera Fitxa.
- Bankuko datuen fitxa.
- Txosten bat (pdf formatuan), gehienez ere 6 orrikoa: Curriculum vitae laburra eta gehienez ere 4 irudiko portfolio bat.
- Ikasleak talde moduan ere aurkeztu daitezke, gehienez ere 3 pertsonako taldeetan.

3.3 Hautaketa prozesua:

Ikasleen hautaketa aipatutako epaimahaiaren esku egongo da; objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko irizpideak aplikatuko dira.

Gutxienez 8 pertsona eta gehienez 24 hautatuko dira.

Epaimahaiak azaroaren 3an adieraziko du publikoki nortzuk izan diren hautatuak eta informazio-bilera batera deituko zaie.

4. BETEBEHARRAK ETA EZ BETETZEAK

4.1 Onuradunen betebeharrak

Hautatutako pertsonak izango dira lanen diseinu eta sorkuntzaren arduradunak, bai azaroaren 12an, baita 22an ere. Aurreikusitako jarduerak garatzeko beharrezko materiala edukitzeaz arduratuko dira, baita sorkuntza-lana antolakuntzari entregatzeaz ere, ekitaldi bakoitzaren amaieran.

Sorkuntza artistikoa azaroaren 22an izango da eta horretarako, lana egiteko euskarria antolakuntzak emango du.

Hautatutako pertsonak Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailak eskatzen dien informazioa eman beharko dute.

Era berean, Programan parte hartzeko baldintzetan edo proiektuen garapenean edozein aldaketa ematen bada, unean-unean jakinarazi beharko diote Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailari.

4.2 Ez betetzeak

Ikasleak ez baditu baldintzak betetzen sorkuntza fasean edo muntaketa fasean, Proiektutik kanporatu egingo dute eta ez du eskubiderik izango ordaintzeko geratzen diren zenbatekoak kobratzeko. Gainera, ordura arte jasotako laguntza ekonomikoak itzuli egin beharko ditu.

5. KONFIDENTZIALTASUNA

ANDRE TA JABE Programaren baitan sortutako informazioa ez da beste ezertarako erabiliko, sortu den xederako baino. Datu pertsonalen eta enpresa-datuen konfidentzialtasuna bermatuko da, Oinarri haue-tan publizitatearen inguruan jasotako eskumenei kalterik egin gabe.

6. PUBLIZITATEA

Unibertsitate hedapeneko dekanordetzak ANDRE TA JABE proiekturako hautatutako ikasleen zerrenda argitaratuko du www.ehu.es/ehusfera/bbaa blogean.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailak egoki ikusten duen baliabideen (testuak, argazkiak, bideoak eta abar) eta euskarrien (komunikabideak, espazio birtualak, sare sozialak eta abar) bidez eman ahal izango du ANDRE TA JABE programan parte hartzen duten proiektuen berri.

Ikasleek, parte-hartze hutsagatik, bermatzen dute lagunduko dutela komunikabideetan ekimenen berri ematen, elkarrizketa, artikulua, erreportaje eta abarren bidez. Hori guztia Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren sailak koordinatu eta kudeatuta.

7. PROIEKTUEN JABETZA

Egindako proiektuen jabetza Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailarena izango da.

8. INTERPRETAZIOA

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailak eskubidea izango du Oinarri hauek interpretatzeko, zalantzak sortzen dituen kasuren bat egongo balitz. Bere erabakia behin-betikoa izango da.

INFORMAZIO GEHIAGO

BILBOKO UDALEKO BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA HIRITARREN SAILA

E-mail: geubiok@ayto.bilbao.net

Tlf.: **94 4204838**

GEU BIOD! ERASORIK GABEKO INTERNET GUNEA

Emakume eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko eta edonolako indarkeria sexistaren aurkako udal webgunea.

